JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**2009ko martxoaren 25a, asteazkena** ZENBAKIA **36** NÚMERO **Miércoles, 25 de marzo de 2009**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2142**

**4/2009 Foru Araua, martxoaren 16koa, Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta osasun egoitza unitatetan gizarte eta osasun zerbitzuak eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Arabako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan aritzeko duen hitzarmena berrestekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2009ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

4/2009 Foru Araua, martxoaren 16koa, Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta osasun egoitza unitatetan gizarte eta osasun zerbitzuak eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Arabako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan aritzeko duen hitzarmena berrestekoa

ZIOEN ADIERAZPENA

Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari osasun asistentziarekin loturiko gaietako eskumen esklusiboa dagokio, eta bigarrenei, beren lurraldeen barruan, erkidego osoko erakundeek gizarte laguntzaren gaian emandako legeak gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren esparruan, Osasun Sailari osasun plangintza eta antolamendua dagozkio, eta, Osakidetza ente publikoaren bitartez, osasun asistentziako zerbitzu publikoak kudeatzea, gobernu eremuen banaketa eta Sailaren beraren egitura organiko eta funtzionala arautzen dituen arautegian xedatutakoaren arabera.

Beste alde batetik, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, Osakidetza ente publikoa sortu du osasun zerbitzuen hornikuntza bere menpean dituen zerbitzu antolakunde publikoen bitartez burutzeko helburuaz. Helburu hori jasotzen du, baita ere, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak, Osakidetza ente publikoaren estatutuak ezartzen dituenak, bere 3. artikuluan.

Eskumen banaketa honek gizarte erakundeen eta osasun erakundeen erantzukizun eta betekizun orokorren eremua argitzen badu ere, pertsona talde handi batek aldi berean osasun eta gizarte beharrizan iraunkorrak ditu, gero eta ugariagoak eta handiagoak, bidenabar esanda, eta horiei behar bezala erantzuteak erakundeen arteko

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2142**

**Norma Foral 4/2009, de 16 de marzo, de ratificación del convenio de colaboración del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco con la Diputación Foral de Álava y Osakidetza para la prestación de los servicios sociosanitarios en las unidades residenciales socio-sanitarias del Territorio Histórico de Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 16 de marzo de 2009, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 4/2009, de 16 de marzo, de ratificación del convenio de colaboración del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco con la Diputación Foral de Álava y Osakidetza para la prestación de los servicios sociosanitarios en las unidades residenciales sociosanitarias del Territorio Histórico de Álava

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los artículos 6 y 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establecen que corresponde a la Comunidad Autónoma Vasca la competencia exclusiva en materias relacionadas con la asistencia sanitaria y a los segundos, dentro de su Territorio, la ejecución de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de Asistencia Social.

En el ámbito del Gobierno Vasco, corresponde al Departamento de Sanidad la planificación y la ordenación sanitaria, y a través de su Ente Público Osakidetza, la gestión de los servicios públicos de asistencia sanitaria, a tenor de lo dispuesto en la normativa que regula la distribución de áreas de gobierno y la estructura orgánica y funcional del propio Departamento.

Por su parte, la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, crea el Ente Público Osakidetza, con la finalidad de desempeñar la provisión de servicios sanitarios mediante las organizaciones públicas de servicios dependientes del mismo. Dicha finalidad es asimismo contemplada en el artículo 3 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza.

Si bien este reparto competencial clarifica el ámbito de responsabilidades y cometidos generales de las instituciones sociales y de las sanitarias, existe un amplio grupo de personas con necesidades sanitarias y sociales concurrentes y mantenidas en el tiempo, necesidades -por cierto- cada vez más numerosas e intensas, cuya

lankidetza bideak behar ditu, administrazio bakoitza gune itxi bezala ikustetik urrun.

Horrengatik, beharrezkoak dira inplikaturik dauden sektoreen arteko lankidetza eta koordinazioa, Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta osasun egoitza unitateetan dauden pertsonei erantzun integratua ematearren, Foru Aldundiak kudeatutako edo itundutako unitate horietan Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak mediku eta osasun prestazioa estaltzeko egiten duen gastua konpentsatuz. Ildo horretatik, eta egoitza unitate hauetan ematen den gizarte eta osasun arretan integratutako osasun arretaren zatiari dagokionez, Diputatuen Kontseiluari aintzakotzat hartzeko bidali zaion foru dekretuaren asmoa haietan ematen den gizarte eta osasun arretan integratutako osasun arretaren zatia bermatzea eta, hala badagokio, diruz konpentsatzea da.

Artikulu Bakarra.- Berresten da Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza ente publikoak izenpetutako lankidetza hitzarmena, Arabako Foru Aldundiak edozein baldintza edo tituluren pean kudeatu, babestu edo itunduta dauden gizarte eta osasun egoitza unitateetan gizarte eta osasun zerbitzuak ematekoa, 2009ko otsailaren 17ko Diputatuen Kontseiluak 74 Erabakian xedatu duen moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 16a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

correcta atención requiere mecanismos de colaboración interinstitucionales ajenos a una visión de las respectivas Administraciones como compartimentos estancos.

Es por ello que se hace preciso la necesidad de colaboración y coordinación entre los sectores implicados al objeto de dar respuesta integrada a las personas que se encuentren ingresadas en las Unidades Residenciales Sociosanitarias del Territorio Histórico de Álava, compensando al Departamento de Política Social y Servicios Sociales del gasto que realice en concepto de cobertura de la prestación médico-sanitaria en dichas unidades gestionadas o concertadas por la Diputación Foral. En este sentido, y por lo que respecta a la parte de atención sanitaria integrada en la atención sociosanitaria que se presta en estas unidades residenciales, el Decreto Foral que se ha remitido al Consejo de Diputados para su toma en consideración pretende garantizar y en su caso compensar económicamente la parte de atención sanitaria integrada en la atención sociosanitaria que ellas se presta.

Articulo Único.- Se ratifica el Convenio de Colaboración entre el Departamento de Política Social Y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y el Ente Público Osakidetza para la prestación de los servicios sociosanitarios en las Unidades Residenciales Sociosanitarias que bajo cualquier condición o título se hallan gestionadas, tuteladas o concertadas por la Diputación Foral de Álava, en los términos acordados por el Consejo de Diputados en su Acuerdo nº 74 del Consejo de Diputados del 17 de febrero de 2009.

Vitoria-Gasteiz, 16 de marzo de 2009.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**2153**

**6/2009 Mozioa, martxoaren 16koa, kudeaketa iraunkorrean ziurtatutako Pinus Radiatako zuraren erabilera sustatzeari buruzkoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2009ko martxoaren 16an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

6/2009 Mozioa, martxoaren 16koa, kudeaketa iraunkorrean ziurtatutako Pinus Radiatako zuraren erabilera sustatzeari buruzkoa

1.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu diote kanpaina bat egin dezala, Eusko Jaurlaritzarekin batera, zurproduktuek industriako produktuen aurrean dituzten onurak jakinarazteko eta sustatzeko.

2.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu diote Arabako Foru Aldundiak berak edo menpe dituen enpresek edo entitateek egiten dituzten obra publikoen baldintzen pleguan sar dezan “kudeaketa iraunkorrean ziurtatutako pinus radiatako zura” erabili behar dela. Ez bada horrelakorik erabiltzen, aldez aurretik justifikatu beharko da teknikoki ezin dela erabili, edo berritze-lanak direla eta dagoneko dauden zurei buruzko estetika-kontuak fikatuta daudela.

Baldintzen pleguetan zehaztapen hori jarri beharko da honako produktu hauetan:

- Egiturak
- Egitura-taulak
- Enkofratu-taulak
- Leihoetako markoak
- Hiri-altzariak

3.- Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diete obra publikoetan zuraren erabilera sustatzeko beste material batzuk sustatu beharrean.

4.- Arabako Biltzar Nagusiek Nekazaritza Saileko Diputatu andreari eskatu dioten hiru hilabeteko apean Nekazaritzako Batzordean agertzeko mozio hau nola bete duten jakinarazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 16a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**2153**

**Moción 6/2009, de 16 de marzo, sobre la promoción del uso de madera certificada en gestión sostenible de Pino Radiata.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 16 de marzo de 2009, aprobaron la siguiente moción:

Moción 6/2009, de 16 de marzo, sobre la promoción del uso de madera certificada en gestión sostenible de Pino Radiata

1.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava a que en colaboración con el Gobierno Vasco realice una campaña de promoción y comunicación sobre el beneficio de los productos madereros frente a otros industriales.

2.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava a establecer dentro de los pliegos de condiciones de obra pública realizados directamente por la Diputación Foral de Álava o por empresas o entidades de ella dependientes, la especificación de que se utilice “madera certificada en gestión sostenible de Pino Radiata”. Su no utilización requerirá previa justificación en los supuestos en los que su uso no sea factible técnicamente o correspondan a obras de renovación donde se establezcan cuestiones estéticas en relación con la madera existente.

Dicha especificación en los pliegos técnicos se establecerá para los siguientes productos:

- Estructuras.
- Panel de estructura.
- Tablero de encofrado.
- Marcos de ventana.
- Mobiliario urbano.

3.- Las Juntas Generales de Álava instan a la Diputación Foral de Álava y al Gobierno Vasco a promover en la obra pública la utilización de madera frente a otros materiales.

4.- Las Juntas Generales de Álava instan a la señora Diputada de Agricultura a que en el plazo de tres meses comparezca en la Comisión de Agricultura con el fin de informar del cumplimiento de esta moción.

Vitoria-Gasteiz, 16 de marzo de 2009.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.